

LA CULTURA POPULAR EN LA EUROPA MODERNA

Peter Burke

[Popular Culture in Early Modern Europe, 1978]


Alianza, 646 or.

Madril, 2005

Aitortu beharrean nago urte asko direla liburu hau *irakurri beharrekoen* zerrendan izan dudala, azkenean, irakurketa orain dela gutxi gauzatu dudan arte. Izan ere, Peter Burke (Londres, 1937-) *Historia Kulturala* deitu izan denaren figura garrantzitsuenetako bat da eta, alde horretatik, euskaldun barentzat interesgarria dirudi haren lanari begiratu bat emateak, diskurtso historiko propio baten bila ari garen neurrian lagungarri gerta dakigukeelako eskema *tradizionalago*etatik aparte (ohiko Historia Politikoa, Ekonomikoa, Soziala...) dauden proposamenak eza-gutzea, jakina baita Euskal Herriak aukera handiagoak dituela subjektu historiko gisa aitortua izateko termino kulturaletan ari bagara, termino politiko, ekonomiko edo sozialetan ari bagara baino.

Lehenengo ahalegin gisa, *El Renacimiento europeo : centros y periferias* (Crítica, 2000) [*The European Renaissance: Centres and Peripheries* (1998)] irakurtzeari ekin nion eta esperientziak ez ninduen dezepzionatu: liburu aberatsa, argia, zehatza, ondo idatzia, guztiz gomendagarria begitandu zitzaidan eta, zer esanik ez, oso baliosa Ernazimentuaren kontzeptualizazio operatibo batera ailegatzeko. Baina bereziki poztu ninduen gaiari eskaintzen dion ikuspegi europarra, alegia, Ernazimentua kontinente osoaren zabalera aztertzea, hiruzpalau *erraldoien* (Italia, Frantzia, Ingalaterra...) muga estuak gaindituz; hortik,

agian, proposamen nagusia, hots, Ernazimentuaren *erdigune* eta *periferiak* desberdintzea. Baina, ororen buru, liburu gutxi irakurri izan dut, benetan, Europa aipatu ostean haren zabalera osoari begiratzen saiatzen direnak, eta ez soilik haren bihotza osatu duten potentzia nagusiak. Dena den, berritasun horretaz landara eta datuak modu egituratu eta ulergarri batean azaltzeko ahalegin arrakastatsuz gain, kontzeptu edo metodologia mailan ez nuen ezer bereziki azpimarragarririk aurkitu.



1. irudia. *Eta - Estimated Time of Arrest* argitalpenaren azala.

Gutziz desberdina da, ordea, orain aipagai nagusi dugun liburua: aurrekoan bezala azpimarragarria da egilearen anbizio intelektuala, hautatu duen gaia espazio eta garai zabal-zabalean garatuz (Europa osoa, hiru mende: 1500-1800), baina horretaz gain, oraingoan esango nuke liburuaren eduki zehatza baino garrantzitsuagoak direla luzatzen dituen proposamen teorikoak, hots, kontzeptualizazio mailakoak: Zer da kultura? Zer da kultura *popularra*?

Zer harreman dago *popularra* eta *popularra ez den* kulturaren artean? Horra liburuaren interesgarritasunaren muina.

Alde batera uzten da *kultura* kontzeptuari eman behar zaion esanahiaz eztabaida puztuetan sartzea, Burke interpretazio antropologiko batera leratzen delarik, kulturatzat gizarte baten baitan sortzen den ia edozein *objektu* edo *ikuskitun* aztergaitzat hartuz; hau da, kultura ez dira soilik liburuak, koadroak eta sinfoniak, baita ere eguneroko bizitzako ia-ia edozein objektu, edozein ikuskizun edo ipuin, edozein soinu edo kanta. Ia-ia edozein, guzti-guztiak ez esateagatik. Jakina, ikuskera horrek halabarrez garrantzia kulturaren ikuspegi bikoitz batera, alegia, arrunki goi eta behe mailako kultura bereiztera, edo beste hitz batez, kultura *jasoa* eta *popularra*, nabarmena baita kultur objektu edo ikuskizun horien artean diferentzia handi-handiak daudela beraien mailari dagokionez.

Hurrengo arazoa, beraz, bi maila nagusi horien artean dagoen harremana aztertzea da, eta hemen aurkitzen dugu Burkeren proposamenik interesgarriena, nire uste apalean: Europako kultura modernoa (1500-1800 artekoa) bi tradizioan banatzen da, *tradizio handia* eta *tradizio txikia*. Lehenengoa arrunki kultura *jasoa* deitzen duguna da elite kultural mehar baten baranoan baino ez dugu aurkitzen, beste moduz deiturik, *goi klaseak* eta *intelektualak*. Baina tradizio handi horren aldamenean, herri xeheak *beste* tradizio bat izan du, *tradizio txikia*: horren azterketa da liburu honen gaia.

Zentzu horretan, liburuaren egitura esanguratsua da, ez baitio segitzen eskema kronologiko bati, guztiz teoriakoa eta kontzeptuala den beste bati

baizik. Lehen kapitulua, berez, kultura popularra zer den aztertzeari dedikatua dago eta hortxe azaltzen zaigu lehentxoan aipatu dugun banaketa; horrekin batera, kultura popularraren pluralismoa ere aztertzen da (landahiria oposaketa, mendialdeak eta kostaldeak, *erregio* edo erlijioaren arabera bariazioak...) baina ondorioztatuz posible dela kultura popularrak bakar batez hitz egitea, Europa mailan eta garai honetan. Sakonera handiko ondorioa da hori, dudarik gabe, ondorio zehatz ezin ugariagoak dituen; gero ere itzuliko gara honetara.

Baina orain beste kontzeptu are garrantzitsuago batean, garrantzitsuen, ziur aski, zentratuko gara: «herriaren aurkikundeak». Hori da, hain juxtu ere, ikerketa zabaltzen duen azpiatala, zentzua ematen diona; irakurle bipila honezkero konturatuko zen gure iruzkinean ez dugula, orain arte *herri kultura* tankerako kontzepturik aipatu, horren ordez *popularra* erabiltzea hautatu dugularik. Hautu hori ez da kasualitatea. Burkeren arabera, XVIII. mendearen bukaeratik aurrera fenomeno berri baten aurrean gaude: elite intelektualeko zenbait kidek *herria aurkitzen* dute, alegia, ordura arte goi klaseen artean mespretxu unibertsala sortzen zuen *herria* mirespenez ikusia izango da hemendik aurrera, *berraurkitua*, ahanzturatik *salbatua*. Herder da aipatzen zaigun lehen izena, Grimm anaiak bigarrena, baina berehala datoz Kirsha Danilov, Arvid August Afzelius, Erik Gustaf Geijer, Vuck Stefanovic Karadzic, Elias Lönnrot... liburuaren lehen eranskinak honako izenburu atsegina du: “El descubrimiento del pueblo: estudios escogidos y antologías, 1760-1846” (397. or.); jarraian, 47 libururen aipamena, J. Macphersonengandik hasi eta J. Micheletekin bukatuz, Europa osoko egileak

tartean. Burkeren begietan, beraz, kultura popularra ez da datu empiriko bat, begi-bistan dagoena edonorentzat; aitzitik, XVIII. mendearen bukaerarako galzorian zegoen zerbait da, une horretan *berraurkitua* eta, neurri nahiko apal batean bakarrik, *salbatua*. Arazo horri dedikatzen dizkio liburuaren atal zoragarrienetako batzuk: hots, nola iritsi gaitzkeen 1500-1800 bitarteko kultura popularraren manifestazioak ezagutzera (114.-142. or.), zein puntutaraino ezinbestekoak zaizkigun bitartekariak (herria aurkitu zuten intelektual horiek), zer zen naufragio orokorretik salbatu ahal izan zuten apurra... Eta honezkero irakurle bipila hasita dago euskaldunei buruzko erreferentzietan pentsatzen.

Ildo horretan, pozgarria da ikustea Burkek ezagutzen eta aipatzen dituela Julio Caro Barojaren ikerketak, baina ez dago euskaldunei edo haien kulturari buruzko beste inolako aipamenik liburuan. Ez da harritzekoa. Gogoratu beharko genuke, berriz ere, herri txiki-txikia garela Europa mailan eta, Burkeren terminoetan hitz eginda, gure *herriaren aurkitzaile* handiek (Azkue, Aita Donostia, Barandiaran, Lekuona...) lan berantiarra egin dutela Europako parametroen aldean: oro har, mende bateko atzerapena. Atsegina da, bai, euskal kultura, folklorea eta biltzaileak Europako parametro arrunt batzuen arabera lasai asko koka daitezkeela ikustea, baina amorrua ematen du gure berankortasun kronikoa berriz ere berrestea. Euskaldunak, gutxi eta berandu, beti gutxi eta beti berandu.

Eta tentatuta egon gaitzke zuzenean gure herriari buruz komentarioak luzatzera, baina horri ekin aurretik saia gaitezen liburu honekikoa bukatzen. Liburuaren bigarren partea Europako kultura popularra deskribatzera dedi-

katua dago, atalez atal. Biziki interesgarria den arren, ez dugu hemen iruzkinduko, tarte luzeegia eskatuko bailuke.

Hirugarren atala, azkena, irakurketa kronologiko bat egiteko saio bat da, alegia, zer den 1500etik 1800era aldatu dena, betiere Europa mailan. Bi kontzeptu dira hemen garrantzitsuak: batetik, *kultura popularraren erreforma*, garai osoan zehar luzatzen dena; bestetik, goi klaseen *ukazioa*. Bi kontzeptuok estuki lotuta daude; Burkeren arabera, 1500etik aurrera Europa osoan zehar goi klaseen ordezkariak saiaturiko dira herriaren kultura *erreformatzen*, hots, herri xehearen mundu sinbolikoa, kantak, ikuskizunak, ohiturak, hizkuntza bera ere, den-dena, parametro *jasoago* batzuen arabera antolatzen. Fenomeno hori nabarmena da bai herrialde katolikoetan, zein protestanteetan edo ortodoxoetan; 2. eranskinean ondoko zerrenda aurkezten digu: “Publicaciones escogidas sobre la reforma de la cultura popular, 1495-1664” (399. or.). Eta zer da intelektual (apaiz, gehienetan) hauek erreformatu nahi dutena? Bada, lehenengo eta behin, herri-jaiak (inauteriak eta gisakoak) eta horietan sortzen diren *gehiegikeriak*: dantza lizunak, bertso gaiztoak, ohitura narratsak... Inauteriekin batera, behin eta berriro aipatzen du sorginkeria errepresioa, Europa osoko fenomeno (eta ez soilik Euskal Herrikoa), *erreforma* honen kapitulu gisa ulerturik. Baina kontua askoz ere urrunago doa: garai bateko ahozko balada epikoak zein lirikoak, gusto txarrekotzat joko dira; ipuinak, lerdokeriatzat; mitoak eta elezaharrak, sineskeria galgarritzat; herriantzerkiak, gusto txarreko eskandalutzat... beraz, denak sastarretara. Irakurle euskaldunari ezaguna izango zaio gaien zerrenda: aski izango du

hainbat euskal idazleren lanak gogoraztea, hasi katiximekin eta buka Bartolome Santa Teresarekin edo Agirre Asteasukoarekin. Burkeren begietan, Europa mailako fenomeno bakar baten aurrean geundeke, ez dena inondik inora euskaldunen berezitasuna.

Erreforma orokor horrekin batera leize handi bat zabaltzen da, kulturalki, goi klaseen eta herri xehearen artean. Izan ere, XVII. mendea aurrera joan ahala gero eta handiagoa eta gogorragoa da goi klaseko kideek herri xehearen aurrean duten mespretxua; XVIII. mendean, mespretxuari ezezagutza gehitzen zaio: etena erabatekoa bihurtzen da eta kultura bitan banatzen da, argi eta garbi, *bikulturalismoaz* hitz egin daitekeelarik. Beharbada egokia izan daiteke liburuko azken atala hona osorik aldatzea:

Así, si recopilamos sobre los trescientos años de los que se ocupa este libro, veremos que el cambio en las actitudes de los instruidos es verdaderamente destacable. En 1500 despreciaban al hombre común, pero compartían su cultura. Sin embargo, en 1800 sus descendientes habían dejado de participar en la cultura popular de forma espontánea, pero estaban en proceso de redescubrirla omo algo exótico y por ello interesante. Estaban empezando a admirar “al pueblo”, aquél del que había surgido esta extraña cultura. (395.-396. or.).

Horretan laburbiltzen da Burkeren tesia: kultura popularra, higatzen eta galtzen joan dena 300 urtean zehar, berraurkitua eta neurri batean salbatua da hura zapuztu eta mespretxatu duten intelektualen moduko beste intelektual batzuen eskutik.

Eta gure aipamen hau bukatzeko, zenbait ideia jaulki nahi nituzke. Zinez tentagarria da euskal kulturaren his-

toria Burkeren parametro teoriko horien arabera interpretatzea. Adibidez, jar gaitezen XVI. mendean: garbi dago euskal literaturaren lehenengo lanak *tradizio handiaren*, hots, elite kulturaren baranoan, kokatzeko asmoa eta bokazioa dutela: Etxepare, Lazarraga, Leizarraga, *Refranes y sentencias*, Garibairen atsotitz bildumak, Etxeberri Ziburukoa, Axular... ez dute herri xehearentzat idatzi, idazten eta irakurtzen jakiteaz gain goi klaseen kultura neurri batean konpartitzen zuten (edo konpartitu nahi zuten) euskaldunentzat baizik; haien lanak ez dira, inondik inora, *popularrak*, Burkek ematen dien adieran, zeina baita, adibidez, Patxi Altunak behin baino gehiagotan eman nahi izan ziena, oker, nire ustez. Baina marraztu dugun zerrenda horretan bertan eten argi bat ikus dezakegu goiztiarreneen (Etxepare, Lazarraga) eta berantiarren (Etxeberri Ziburukoa, Axular) artean: bigarren multzokoak argi eta garbi kultura popularraren *erreformatzaileen* artean sartu beharko genituzke, alegia, herri xehearen ohiturak *zuzendu* nahi dituztenen multzoan. Axularrengandik aurrera badirudi ildo hau indartu egiten dela eta, era berean, idazkien maila jaitsi, herritar gero eta xeheagoengana iritsi nahirik: katiximak, sermoiak eta liburu piodosoak dira beren produktu tipikoenak; Barrutia baten herri-antzerkia, edo berriki aurkitua izan den Altxibarren *Grand Tourra*, aldiz, *istripu zoriontsuak* lirateke, *tradizio txikiaren* iraupenaren lekukoak, baina korronte nagusitik kanpo erabat. XVIII. mendearen bukaerara iritsi behar dugu berriz ere zerbait desberdin ikusten hasteko, Jusef Egiategi, adibidez, edo Martin Duhalderen *Birjinia*; oso maila apalean, dena den, zeren eta XX. mendera arte *populismoak* segitzen du jaun eta jabe izaten euskal literaturan, eta Mirande, Aresti eta Txillardegia agertu arte,

erabat nagusi. Baina XIX. mendearen erditik aurrera hasten dira gure *herriaren aurkitzaileak* agertzen, Abadia eta Xaho lehenengo, Azkue eta enparauak gero, ia gaur egun arte; eta beraiekin batera, berriz ere indartzen da *tradizio txikia*, hots, literatur genero popularrak: bertsoak, kantak, herri-antzerkiak, inauteriak, maskaradak... Etxahun bien arteko konparaketa bat egiteak argia eman dezake prozesu horretaz.

Euskal kulturaren historiak, beraz, oro har Europa mailako modelo burkear horren parametroak segituko lituzke, berezitasun batzuekin (beste edozein kasuk bezala): 1500 aldean goi klaseek eta herri xeheek kultura bera partekatzen dute; hortik aurrera goi klaseekin identifikatutako intelektualek (aipazak gehienetan) herri kulturaren *erreformari* ekiten diote eta, era berean, goi klaseak urrundu egiten dira *tradizio txikitik*, harekin erabateko eten batera ailegatuz 1800erako; baina 1800etik aurrera *herriaren aurkikundea* dugu eta kultura popularraren neurri bateko salbamendua eta berpizkundea; gure berezitasuna hauxe litzateke: *aurkikunde* hori mugimendu foralistarekin identifikatzen dela lehenengo, abertzaletasunarekin gero; berezitasun hutsal xamarra, ziur aski, Europako beste aurkikunde askok eta askok ere (guztiek?) lotura nabarmenak baitituzte tokiko abertzaletasunarekin.

Tentazioa egon daiteke euskal berezitasuna hizkuntzaren historiarekin lotzeko. Eta egon daiteke horretarako arrazoirik, alegia, gero eta garbiago baitago XVI. mendeko eliteak euskaldunak (euskal hiztunak) zirela, baina poliki-poliki euskara abandonatzen joan zirela, mespretxatzen, hala nola Europa mailan eliteek *ukatu* zuten kultura popularra, 1800erako mespretxa-

tzeaz gain guztiz ahaztu arte. Berdin egin ote zuten euskal eliteek euskararekin? Hots, ezagutzetik eta mespretxatzetik ez ezagutzera eta mespretxatzera pasatu ziren? Garbi dago neurri batean baietz erantzun behar dela. Kultura popularrarekiko mespretxua eta herri xehearen hizkuntzarekiko mespretxua gauza bat eta bera izango zen, ziur aski, 1500etik 1800era (edo, gurean, 1900era gutxienez) luzatzen den prozesu batean; era berean, kultura popularraren aurkikundea eta euskararen birbalioztatzea 1800etik aurrera, prozesu bat eta bera da, ziur. Baina honetan ere funtsean fenomeno bera dugu Europa osoan, Burkek berak ohartarazten duenez:

Otra de las objeciones que han ido surgiendo se refiere al uso del término “bicultural” [hots, goi mailako kultura eta kultura popularra]. Acué este concepto, inspirándome en el modelo del “bilingüismo”, para describir la situación de los miembros de las élites quienes aprendieron, como todo el mundo en su niñez, “canciones y cuentos” populares, pero que al mismo tiempo participaban de una cultura “alta” o “instruida” que recibían en las escuelas, en las universidades, en las cortes y en otros lugares a los que no tenía acceso el pueblo común. Un paralelo lingüístico más exacto podría ser la “disglosia”, es decir, la aptitud para hablar dos variedades del mismo lenguaje (el árabe clásico y el coloquial, por ejemplo), utilizadas indistintamente dependiendo de la situación, el objeto de la conversación, etc.” (21 or.)

Garbi dago Burkerentzat paralelismo garbiak daudela kultura popularraren historiaren eta hizkuntzaren historiaren artean, egoera disglosikoak gertatzen direnean (berdin hizkuntza beraren bi aldaera daudenean jokoan

edo bi hizkuntza desberdin). Liburuan zehar, han hemenka, alusio gehiago aurki daitezke; adibidez, ziur aski Errusiako kasuak badu gurearekin paralelismo zehatzagorik. Zergatik ez gara saiatzen eredu teoriko hau sistematikoki aplikatzen euskararen historia sozialari? Edota euskal literaturaren historiari berari?

Pruden Gartzia Isasti